

Erositako prezioan



KOLDO ALDALUR
KAZETARIA

Korrikarako eta bizikletan aritzeko duen berezko abilitadea ikusita animatu dute lagunek Juan Miel, gaurko gure protagonista, Donostiako triatloian izena ematera. Lehorrekoa izanik ordea, ez daki nola moldatuko den Donostiako badiako ur beti ez bakesuetan. Berezko sasoa nahikoa izango zen ala ez, alegia.

Zalantza gain, kezka ere etorri zaio gogora irteera puntuan, ilaran jarritako bizikletak ikusi dituenean. Uretatik irrendakoa, hainbesteren artean, berea topatuko ote duen pentsatu du.

Bozina jo dutenean, murgildu da uretan beste zientoka partaiderekin batera. Hasieran, hoberenen pare, gainontzekoek sortutako zalaparta eta apar artean. Geroxeago, bere tankerako bakarren bat soilik aurreraxeago. Ohar-tzerako, bakar-bakarrik hondartzatik urruntzen. Egosgogor erabatekoa izateak lagunduta heldu da nola edo hala Santa Klara parean dagoen buiara, eta hartu du buelta.

Ordura arte marea behera zihoan lagunduta, larri, baina burutu du ibilbide erdia, eta orduantxe konturatu da igerian ez dakiela. Hura herioa! Altxa-

Hil kanpaiak nonahi,
tanatorioko berriketak,
apaiz bakarreko hileta
elizkizun tristeak.
Nazkatu naiz. Egoerak
min egiten dit, eta, bai,
ihes egin nahi dut

tu du burua, eta han urrutian ikusi du Hotel Londresen iragarkia. Letra txiki-txikiak dituela iruditu zaio, baina erdia egin duela pentsatuz, saiatu da igerilari trebeak bezala burua uretan sartu eta berriro erritmoa hartzen. Gero eta saio laburragoak egiten ditu, eta Hotel Londreseko iragarkiaren letrak gero eta txikiagoak iruditzen zaizkio.

“Inork ez al du nire bizikleta eraman-go behintzat beste sastarren bat niretzat utzita, ezta?”. Horretan, haren zain aspertzaren hasiak ziren antolatzaileak hurbildu zaizkio, ea proba utzi eta txalupara

igo nahi duen galdezka. “Erretiratu! Hau dena egin eta gero, erretiratu!”.

Pixkanaka, hasi dira hoteleko iragar-kiaeren letrak handitzen. Txikituta dago, baina lehorretik aupaka ari diren andrearen eta semearen oihuak entzuten hasi da.

Nahi orduko ez bada ere, iritsi da bizikleta utzi zuen tokira eta, jakina, berea bakarrik bertan. Hura ere bere zain. Hura lasaitua!

Erositako prezioan saldu dizuet Juan Mielen istorioa. Berak kontatu zigun afaloste batean. Bakarren batek esango du bizi dugun egoera ilun hau ez dela kontu arinetan ibiltzeko garaia eta errealitateari ihes egiten ari naizela. Bai, hala da. Aspalditxoan, lagun artean gaudenean, gaixotasuna, txertoa, kutsatuak, konfinamendua... hil kanpaiak nonahi, tanatorioko berriketak, apaiz bakarreko hileta elizkizun tristeak. Nazkatu naiz. Egoerak min egiten dit, eta, bai, ihes egin nahi dut.

Oharra: Juan Mielek, behin bizikleta hartu zuenean, zituenak eta ez zituenak eman, eta lehen berrogeien barruan bukatu zuen triatloia. Urari ihes egiteagatik, edozer gauza. ●



endanea
MÁS QUE UN GARDEN

943 64 17 10
www.endanea.com

Zaindu
maite duzuna

Zure maskotarentzat behar
duzun guztia aurkituko duzu
gure dendan.

Zatoz!

Online denda

